



IKASLEENTZAKO
GIDA

*SAMURAIAREN
BEGIRADA:
AKIRA
KUROSAWAREN
MARRAZKIAK*

hó

Alhóndiga Bilbao

SAMURAIAREN BEGIRADA

AKIRA KUROSAWAREN MARRAZKIAK

Akira Kurosawaren lana aztertzeari ekin aurretik, ondo kokatu behar dugu herrialde, garai eta gizarte jakin batean, mendebaldean gutxi ezagutua izan arren, gero eta ezagunago bilakatzen ari den ingurunean.

BIOGRAFIA LABURRA

Akira Kurosawa Tokion jaio zen, 1910eko martxoaren 23an, samurai jatorriko familia baten baitan. Bere familiaren jatorriak XI. menderaino egiten zuen atzera.

Aitak, Yutaka Kurosawak, etika samurai zorrotzari jarraiki hezi zuen, eta borroka-arteek, kaligrafiak eta zinemak pizten zioten grina helarazi zion.

Lehen Hezkuntzako ikasketak egin zituenean, Seiji Tachikawa ezagutu zuen, eta horrek margotzera bultzatu zuen, eta laguntza eman zion prestakuntza artistikoa osatzeko. Denbora batez, Kurosawak margolaria izateko xedea izan zuen. Aitak bultzatuta, Tokioko Arte Akademian aurkeztu zuen bere burua, baina ez zuen sarrera-azterketa gainditu. Hortik aurrera, modu autodidakta batez prestatzea erabaki zuen, prestakuntza akademikotik askeago, eta hainbeste maite zituen margolari europar modernoan eran –hala nola, Cezanne eta Van Goghen eran–.

1935. urtean, menturaz jarri zen harremanetan zinemagintza-aren esparruarekin: PCL [Photo Chemical Laboratory] laborategiaren deialdi batera aurkeztu zuen bere burua, eta zuzendaritzako laguntzaile gisa onartu zuten. Hala, Kajiro Yamamoto zuzendari, ekoizle eta aktore ospetsuarekin lan egin zuen; maisu oso bat zen bere ustetan.

Horren ondoren, bere prestakuntza zabalduz joan zen, zinemagintzan eta zinemagintzari begira, eta zuzendaritzako laguntzaile eta beste zinemagile batzuentzako gidoilari gisa aritu zen.

1941. urtean eman zuen argitara bere lehen gidoia, eta 1943. urtean lehenengo filma zuzendu zuen: *Judo handiaren elezaharra (Sanshiro Sugata)*.

Zinemagintzan egin zuen ibilbide luzean, Akira Kurosawak 31 film zuzendu zituen, eta beste proiektu batzuetan aritu zen gidoilari eta zuzendarikide gisa. 1990. urtean, 80 urte zituela, Ohorezko Oscar saria jaso zuen bere filmografia osoarengatik; eta 1993. urtean bere azken filma zuzendu zuen, *Itxaron pixka batean [Madadayo]* izenekoa.

BIZITZEKO EGOKITU ZITZAION GARAIA

Kurosawak une historiko konplexu batean hasi zuen zinemagintzako ibilbidea.

XIX. mendearen bukaeran, Japonia, ia 200 urtez gerra feudaletan murgilduta eta ia guztiz bakartuta egon zen inperioa, zabaltzen eta gaurkotzen hasi zen. Harreman diplomatikoak eratzen hasi zen beste herrialde batzuekin, eta, une horretan, kolonizatuak izateko beldurrez, itunak egin zituzten mendebaldeko potentzia batzuekin.

Europako Bigarren Mundu Gerraren garaian, Japoniak sekula izan duen erasorik handienetako bat jaso zuen, eta suntsituta geratu zen, hala fisikoki nola moralki. Hala ere, hurrengo bi hamarkadetan, erabat hondatuta zegoen herrialde hori munduko bigarren potentzia ekonomikorik handiena bilakatu zen [egile askoren ustez, Japoniako kultura, erlijioan eta samuraien kultura ohikoak diren lankidetzako, esfortzuko eta diziplinako espirituari esker].

Denbora luzez, Japonian, mendebaldartutzat jo zuten Kurosawaren zinemagintza. Haren filmak mendebaldeko kulturari egindako aipamenez beterik zeuden, Kurosawak ederki ezagutzen baitzuen mendebaldeko kultura. Paradoxa badirudi ere, Mendebaldean, Japoniako zinemagintza nazionalako «enperadorea» balitz bezala egiten zioten harrera.

Alabaina, Kurosawaren ikuspegia askoz ere sakonagoa eta kontraesankorragoa da. Izan ere, bere zinemagintzak zalantzan jartzen ditu hala japoniarrek beren buruaz duten irudia, nola Mendebaldeak Japoniari buruz duen ikuspegia.

ERAGINAK ETA INSPIRAZIOA

Japoniarrek bereizgarri batzuk dituzte, beren historia berezia eta ingurunearekin izan duten eragin-trukea islatzen dituzten ezaugarriak. Begirada bat egin diezaiogun herri gisa egin duten ibilbideari.

Hona hemen abiaburua:

- Japonia uharte bat da, eta horrek eragina du herrialdeak izan duen bakartzeari begira.
- Japoniako geografia menditsua da, eta herriak uhartean dauden eremu lau bakanetan elkartzen dira.
- XIX. mendearen bukaerara arte, biztanle gehienak landa-guneetan bizi izan ziren —une horretan hasi zen Japonia gaurkotzen—.
- Berrogeiko hamarkadara arte, Japoniak ez du harreman nabarmenik izan beste herrialde batzuekin, eta, hortaz, bere garapen ekonomikoa eta soziala ezin da parekatu mendebaldean izan denarekin.
- Gizartearen egitura oso hierarkikoa izan da, eta hala da oraindik ere.

Horrek guztiak japoniar identitate jakin bat eman du emaitza gisa, non norbanako bakoitzak gainerakoekiko dituen betebeharren garrantzia bere gain hartzen duen, eta gizarte-harmonia norbanakoa adierazteari gainjartzen dioten. Subjektuak aurrean duen errealitatea onartzen du modu naturalean.

Ikusmolde horretatik datorkie japoniarrei naturarekiko errespetua.

Gainera, Japonian, erlijio ezberdinen ezaugarriak partekatzen dira: budismoa, sintoismoa, konfuzionismoa eta taoismoa.

Alderdi horiek guztiek eragina izan dute Akira Kurosawaren obran: erlijioa, tradizioa, kultura, historia, ingurune historikoa, eta abar. Eragin nabarmen hauek ikus ditzakegu argi eta garbi:

- Noh antzerkia: erlijio eta mitologiako istorioak oinarritzat hartuta, XV. mendean barrena landu zen antzerki-mota.
- Zen tradizioaren oinarritzko zazpi ezaugarriak: simetria, soiltasuna, apaindura eza, naturaltasuna, sakontasun sotila, askatasuna eta atxikitasunik eza, eta baretasuna.
- Budismoa: heriotza beldurrik gabe onartzeko ikuskera, eta itxuren eta objektuen munduarekiko atxikitasunik eza. Berraragiztatzea.
- Konfuzionismoa eta sintoismoa: aita eta semearen, senar eta emaztearen, anaia handi eta txikiaren arteko harreman moralak.
- *Bushido* kode etikoa [samuraiaren kredo, Japoniako ideia moralak ulertzeko ezinbestekoa dena].
- Ingurune teknologiko-kontsumistan jausteko arazoa kenduta,

gizakia dagokion ingurune naturalean era harmoniatsuan txertatu nahi duen humanismoa.

- Mendebaldeko kulturako klasikoak, zinema eta, adibidez, Shakespeare.

Egin dezagun gogoeta une batez aipatu ditugun osagai horiei guztiei buruz, eta hausnar dezagun nola agertzen diren Akira Kurosawaren obran.

Oro har, **testuartekotasuna** da testu bat jatorri desberdinetako beste testu batzuetara hurbiltzeko dauden harremanen multzoa: egile beraren edo, arrunki, beste egile batzuen testuetara hurbiltzeko, garai bereko edo aurreko garaietako testuetara hurbiltzeko, aipamen esplizitu [hitzez hitzeko edo aipatu] batekin edo genero bati egindako dei batekin, arketipo testual batera edo formula zehaztugabe edo izengabe batera hurbiltzeko.

Kurosawaren ustez, zinemagintza film-testu bat zen, eta arte desberdinek osatzen zuten, beren komunikazio-kodeak eta berezitasunak zituzten arteek. Alabaina, bere filmetan argi ikus ditzakegu jatorri askotakoak diren testuekiko harremanak [egile, garai edo genero desberdinetako testuekikoak].

STORYBOARD-AK

Storyboard-a edo gidoi grafikoa sekuentzian aurkeztutako ilustrazioen multzo bat da, eta era horretan erakusten dira istorio bat ulertarazteko gida modura, animazio bat aurrez ikusteko, edo film bat egin edota filmatu aurretik haren egitura ikuskatzeko.

Film bateko gertaeren kontakizuna antolatzen duten binetak dira. Plangintza modura erabiltzen da, eszenak edo sekuentziak filmatu aurretik. Erabiliko diren enkoadratze-mota eta ikus-angelua zehazten ditu, eta gertaeren ikus-antolamendu finkatzen du, kameraren objektiboak ikusiko dituen moduan paratuz.

Heldu diezaiogun orain arte aipatutakoari, eta ekin diezaiegun berriro hurrengo ideiei:

Kurosawak pintore izan nahi zuen + Testuartekotasunaren kontzeptua [zinea arte ezberdinek osatzen dute] + bere azken filmak diruz laguntzeko zailtasunak = *storyboard*-ak sorrarazi.

Japoniako zine-industria krisian zegoen unean, Kurosawak ezin zuen diru-iturririk aurkitu, bere proiektu epikoak finantzatu zitzaizten. [Lehenengoz, *Kagemusha, gerlariaren itzala* filmarekin gertatu zen].

Japoniako zinemagintzaren industrian izandako krisialdiko une batean, Kurosawak ezin izan zuen iturririk lortu bere proiektu epikoak finantzatzeko. [*Kagemusha, gerlariaren itzala* filmarekin gertatu zitzaion lehenengo aldiz].

Kurosawak proiektuaren ideia zuen, baina, gai historikoei buruzko superproduktzio bat egiteko, inbertsio ekonomiko handia behar da. Finantziarioa lortzeko, Kurosawak zinemagintzako kontakizuna izango zenaren kontakizun plastikoa sortu zuen. Marrazkietan, Kurosawak arreta handiz antolatu zituen filmeko giroa, harraldien enkoadratzea, eszenak eta haien tentsio dramatikoak, pertsonaiak, jantziteria, dekorazioa, eta, horrez gain, kokalekuak irudikatu zituen eta oharrak hartu zituen filmatze-taldearentzat.

JARDUEREN KOADROA

Berriro irakurri storyboard kontzeptuaren definizioa.

Zeren antza dauka? Zergatik?

Storyboard-ak aldeztu aurretik ikusitako filmerik edo serierik ezagutzen duzu?

ERAKUSKETAKO FILM BATZUK

Jarraian, Kurosawaren lanik enblematikoenetako batzuk aztertuko ditugu, eta argi eta garbi ikusiko dugu orain arte aipatutako gaiak nola azaltzen diren.

Kagemusha, gerlariaren itzala [KAGEMUSHA] Urtea: 1980

Gidoia: Akira Kurosawa, Masato Ide. Argazkia: Takao Saito, Ueda Masaharu, Asakazu Nakai, Kazuo Miyagawa. Musika: Shinichiro Ikebe. Muntatze-lana: Akira Kurosawa. Koloretan. Iraupena: 159 minutu. Ekoizpena: Toho, Kurosawa Production, Twentieth Century Fox. Ekoizle eragile laguntzaileak: Francis Ford Coppola eta George Lucas. *Storyboarda*-a: 366 marrazkiz osatua.

Gaia:

Film epiko hau nortasunari eta botereari buruzko hausnarketa da. Protagonista garrantzi gutxiko lapur bat da, halako batean, gatazketan «heroiaren» zeregina betetzera behartuta ikusten duena bere burua.

Argumentua:

Takeda Shingen [subirano feudal] *daimy* boteretsuak ikaragarriko ospea eskuratu du, bere gerrako zutoihaletan idatzitako goiburuak bezainbeste: «Haizea bezain arina, basoa bezain barea, sua bezain basatia, mendia bezain tinkoa». Shingen hilzorian dago etzanda, gatazkan egin dizkioten zaurien ondorioz. Bitartean, gerlariei agindua ematen die bera ordeztuko duen ordezkoa bila dezaten, bere heriotza isilpean gordetzeko eta, hortaz, arerioek, ahuldade-une batez baliaturik, boterea eskuratu ez dezaten. Takeda Klanak hautatutako *kagemusha* [gerlariaren itzala, ordezkoa] gaizkile apal bat da [Tatsuya Nakadai]. Hala ere, Shingen buruzagi handitzat aurkeztu beharko du bere burua, eta 25.000 samuraiak eratzen duten batasun handiaren komandante bilakatu.

Edukiak:

Japoniako historia. Gerra feudalak eta modernitatea, samuraiak.

Zinemagintzako generoa:

Drama [mendebaldekoa], *jidai-geki*, *shambara*.

Nabarmenezkoa:

Akira Kurosawak esaten zuenez, nola edo hala harrapatu behar zituen «enkladratzea, pertsonaien psikologia eta emozioak, haien mugimenduak, kameraren angelu egokia mugimendu horiek hartzeko, argiteria, jantziteria eta osagarriak [...]. Aurrez hausnarketa egin ez badut osagai horietako bakoitzari buruz, ezin dut eszena marraztu».



Kagemusha, gerlariaren itzala, 1980 © Toho/Kurosawa/The Kobal Collection/Contacto

Jidai-geki, shambara

Japoniako zinemagintzak berezko generoak ditu. *Jidai-geki* bat beti egongo da garai feudalean girotuta, modernitatea iritsi aurreko sasoi-etan. Feudalismoa politika eta gizartea antolatzeke sistema bat da, eta antzeko ezaugarriak ditu azaldu den herrialde guztietan. Egitura hierarkikoa du, gailurrean erregea edo enperadorea dago, eta, haren azpian, aitoren seme-alabak, lurjabeak [Daimyo] edo militarrik [Shogun] daude, eta samuraiaren irudia ere bai.

Shambara generoa samuraien zinemagintza zehazteko erabiltzen da.

Hitzak onomatopeia batean du sorburua: *katana* batek beste batekin talka egin, eta arerioaren haragia moztu ondoren ateratzen den hotsa.

Zer da samurai bat?

Samuraia garai feudaleko irudi bat da. Gerlarien klaseko kidea zen aldetik, bere zeregin nagusia jaunari zerbitzua zintzoki egitea zen. Izan ere, samurai terminoaren sorburuan dagoen hitzaren esanahia «zerbitzatu» da.

Zerbitzatzeak esan nahi zuen prest egon behar zuela bizitza jaunaren alde emateko. Alabaina, normalean, konpromiso horren oinordekoek baizik ez zuten hori onartu behar.

Katana zen haien armarik ezagunena; dena dela, antzinako garai-etan, arkuak izan zen nabarmenena.

XIX. mendearen amaieran, Japonia modernizatu zenean, samuraiaren irudia zaharkituta gelditu zen.

Bushido-a

Bushido Shoshinshu-a [samuraiaren kodea] Taira Shigeshukek XVII. mendearen amaiera aldean idatzi zuen tratatu bat da, eta samuraien etikaren gaia aztertzen du.

Ez dut gurasorik, zerua eta lurra dira nire gurasoak.
Ez dut jainkozko boterarik, zintzotasuna da nire botere bakarra.
Ez dut baliabiderik, mendetasuna da nire baliabidea.
Ez dut botere magikorik, nire barruko indarra da nire magia.
Ez dut bizitarik ez heriotzarik, betikotasuna da nire bizitza eta nire heriotza.
Ez dut gorputzik, sendotasuna da nire gorputza.
Ez dut begirik, arauak dira nire begiak.
Ez dut soin-atalik, arintasuna da nire soin-atala.
Ez dut asmorik, aukera da nire asmoa.
Ez dut miraririk nire bizitzan, halabeharra da nire miraria.
Ez dut oinarriarik, gauza guztietara egokitzeko gaitasuna da nire oinarria.
Ez dut lagunik, nire gogo da nire lagun bakarra.
Ez dut etsairik, arduragabekeria da nire etsai bakarra.
Ez dut armadurarik, borondate ona eta justizia dira nire armadura.
Ez dut gaztelurik, nire gogoaren irmotasuna da nire gaztelua.
Ez dut ezpatarik, nire gogoaren ekintza da nire ezpata.

Japoniako «gerlarien jokabide-arauak» mendebaldeko aitoren seme kristau feudalek izan zituzten arauen antzekoak dira.

JARDUEREN KOADROA: HAUSNARKETA

Nola lagundu zuen Kurosawak samurai kultura hedatzen?
Erreparatu samuraiaren janzkerari... filmen bat ekartzen dizu gogora?
Zer-nolako antzekotasunak ikusten dituzu janzkera honen, armen eta Izarretako Gerraren [Stars Wars] pertsonaien artean?
Jedi zaldunek eta Kurosawaren samuraiek antza daukate?



Ran, 1985 © Herald Ace/Nippon Herald/Greenwich/The Kobal Collection/Contacto

Ran

Urtea: 1985

Gidoia: Akira Kurosawa, Hideo Oguni, Masato Ide. **Argazkia:** Takao Saito, Masaharu Ueda, Asakazu Nakai. **Musika:** Toru Takemitsu. **Jantziteria:** Emi Wada. **Muntatze-lana:** Akira Kurosawa. **Koloretan.** Iraupena: 159 minutu. **Ekoizpena:** Serge Silberman, Greenwich Film Production-entzat, Herald Ace, Nippon Herald Film, Masato Hara. **Storyboard-a:** 862 marrazkiz osatua.

Gaia:

Gerra saihestu beharreko kaosa da. *Ran* japonierazko hitza da, eta gerra edo kaos gisa itzul daiteke.

Argumentua:

XVI. mendean, bere feudoko jauna zen Hidetorak bere klana eta gazteluak hiru semeei uztea erabaki du. Saburo, anaiarik txikiena, okerrena gerta daitekeelakoan, erabakiaren aurka azaltzen da, eta aitak arbuiatu egiten du. Bitartean, beste bi anaiak – Tarok [nagusiak] eta Jirok [erdikoak]– elkar hartzen dute, aita behin betiko bakartzeko eta ondasun guztiak kentzeko.

Edukiak:

Gizakiaren grinak, barneko kontraesanak, *Bushido*-aren arauak haustea, handinahia, harrokeria.

Zinemagintzako generoa:

Drama [mendebaldekoa], *jidai-geki*, *shambara*.

Koloreen erabilera

Ikus dezakezuen *storyboard*-ak erakusten du zeinen arduratsua zen zine-zuzendaria xehetasunekin.

Akira Kurosawak ondokoa aipatu zuen koloreak *Ran*-en erabiltzeari buruz: “Japoniako XVI. mendeko koloreak erreproduzitu nahi nituen, izan ere, garai hartan, gizonezkoen janzkera benetan berebizikoa zen”.

Koloreek armadak identifikatzen dituzte, eta pertsonaia bakoitzaren nortasuna ordezkatzen dute.

Horia Taro da, seme nagusia, eta batere neutroa ez den kolorea da.

Urdina Sabura da, seme gaztea, eta lasaitasuna eragiten duen tonua da.

Gorria Jirorena da, tarteko semea, eta bere odol-gose mendekaria erakustea du helburu.

Aitak, Hidetorak, beneragarritasunaren kolore zuria janzten du.

Batailak kolore-masen koreografia bihurtzen dira.

JARDUEREN KOADROA

Zer iritzi daukazu filmaren giroari buruz?

Hodeien koloreari buruz?

Zure ustez, aldatzen doaz garatzen diren gertakariak jazo ahala?

Nola?

Aktoreen antzezpena

Baliteke aktoreen interpretatzeko moduan zerbait berezia antzematea.

Zure ustez, zergatik izan daiteke hori?

Euren interpretazioa XVI. mendeko hezkuntza onaren kodea eta formalismoa erreproduzitzen dituen antzerki zeremoniotasunean oinarritzen da.

Kode horrek dena arautzen du: nola eseri, nola mugitu, non eta nola *kokatu* katana, etab.

Horregatik, bada, eszenak “ezberdinak” iruditzen zaizkigu.

Adibidez, hurrengo eszena, hots, Lady Kaedek bere koinatua [Jiro] klan berriko lider bezala aurkezten duenean batailan zendutako bere senarraren [Taro] kaskoa entregatzen dion bitartean, hainbat astez prestatu behar izan zen. Izan ere, alde zuzenetik, aktoreari mugimendu bakoitzaren zentzua irakatsi zitzaion, bere keinuetako bakoitza modu perfektuan menperatzeko.



Akira Kurosawaren ametsak, 1990 © Warner Bros/The Kobal Collection/Contacto

Akira Kurosawaren ametsak

[KONNA YUME WO MITA] Urtea: 1990

Gidoia: Akira Kurosawa. Argazkia: Takao Saito, Masaharu Ueda. Musika: Shinishiro Ikebe, Mikhail Ippolitov-Ivanov. Jantziteria: Emi Wada. Muntatze-lana: Akira Kurosawa, Tome Minami, Noriko Neharu. Koloretan. Iraupena: 117 minutu. Ekoizpena: Kurosawa Production, Amblin Entertainment [Steven Spielberg] eta Industrial Light and Magic [Lucas Company]. *Storyboard*-a: 476 marrazkiz osatua.

Gaia:

Akira Kurosawaren ideia humanistak, hau da, bere biografian behin eta berriz agertzen diren kezka moral, estetiko eta intelektual handiak.

Argumentua:

Zortzi ametsak eratzen dute gidoia; hauek: «Eguzkiak dirdira egiten du eurian barrena», «Mertxikondoen baratzea», «Elur-ekaitza», «Tunela», «Beleak», «Fuji mendi gorria», «Deabru negartia», «Ur-erroten herrixka» eta «Hegaldia» [azken hau ezin izan zuen filmatu].

Edukiak:

Norberaren tradizio kulturalaren ikaskuntzak duen garrantzia, naturaren oreka zaintzeko beharra, zoritxarra gainditzeko ahaleginaren balioa, gerra izua baizik ekoizten ez duen makina gisa hartzea, artea sormen espiritual gisa ikustea, gizakiak teknologia gaizki erabiliz [energia nuklearra]

zor ditzakeen hondamendien aurreko beldurra, garapenaren gaur egungo ikusmoldearen eta bizitza tradizionalako moldeen arteko kontraesanak.

Zinemagintzako generoa:

Drama, fantastikoa.

Akira Kurosawaren humanismoa

XIX. mendetik aurrera gizakia hausnarketaren ardatz gisa hartzen duen pentsamenduaren joera da **humanismoa**.

Akira Kurosawaren filmografia osoan ikuspegi humanista agertzen da nabarmen, eta, neurri handi batean, Kurosawaren bizipen pertsonalek izan zuten eragina ikuspegi hori izan zezan.

Bere film guztietan osagai hauek agertzen dira batera:

- Esentziaren edo ekintzen bidez zenbait giza balio hezurramitzen dituzten pertsonaiak, esate baterako, ausardia, sakrifizioa, elkartasuna, edertasunarekiko maitasuna... hezurramitzen dituztenak.
- Hondamendia ekarri eta mundua usteltzen duten pertsonaia berekoiak.

Kurosawak sortu zituen pertsonaien jarrerak itxaropenezko mezu bat aldarrikatzen zuen bizitzaren aurrean.

Europako literaturako kapareen antza duten pertsonaiak sortu zituen, beren interesak bigarren mailan utzi, eta ahulei laguntza ematen dieten pertsonak, ohiz kanpoko adorea eta heroismoa erakusten dituztenak. Samuraien zeregina.

Kurosawak Vincent Van Goghen espresionismoari zion mirespenaren inguruan.

Van Gogh eta grabatu japoniarrak.

XIX. mendearen erdialdean izan ziren merkataritzako trukeei esker, Japoniako arteak eragin nabarmena izan zuen garai hartako mendebaldeko abangoardietan, hainbesteko eragina non «japonismo» izenez deitutako estiloa ere sorrarazi baitzuen.

Japonismo hitza Japoniako kulturak mendebaldean izan duen eraginari dagoio. Estanpak [ukiyo-e] eta xilografiak inspirazio-iturri garrantzitsua izan ziren garai hartako Europako artista askorentzat.

Hauek dira japonismoaren ezaugarri nagusiak: asimetria, irregulartasuna, perspektiba eza, itzalik gabeko argiak, arlo lau handiak, kolore dirdaitsuak, giro erlaxatua eta konposizio askea, subjektuak erdigunetik aterata erakusten dituenak.

Hogeita hamabi urte zituela, Vincent Van Gogh Parisen zegoen grabatu japoniarren erakusketa batean izan zen, eta hunkituta geratu zen, batez ere, grabatuak egiteko erabilitako leuntasun eta soiltasun estetikoa ikusita eta grabatuek helarazten zuten baretasuna sumatuta.

Kolorearen bila zebilela, Van Gogh Arlesera bizitzera joan zenean, zioenez, Japonia berri bat aurkitu zuen Frantziako hegoaldean: «ez dut irudi japoniarrak ikusi behar, une oro esaten diot neure buruari hemen Japonian nagoela».

Van Goghek baieztatu zuen arte modernoak etorkizuna izan nahi bazuen, Japoniako arteari behatuz egin beharko zuela.

Van Goghek sortu zituen hainbat lanen oinarrian, Eisen Keisai [1790-1848] eta Hiroshige Utagawaren [1797-1858] estanpak zeuden.

JARDUERAREN KOADROA

Arretaz erreparatu storyboard-etako irudiei.

Aldez aurretik ikusi duzun pinturaren bat ekartzen dizu gogora?

Artista ospetsu baten lana?

Zer antzekotasun aurkitzen dituzu?

Konpara itzazu Kurosawaren irudiak storyboard honen ondoan eta erakusketaren sarbidean eta irteeran proiektatzen den filmaren eszenarekin; zer gertatzen da eszenan?

Itxaron pixka batean

[MADADAYO] Urtea: 1993

Gidoia: Akira Kurosawa, Hyakken Uchidaren obretan oinarrituta. Argazkia: Takao Saito, Masaharu Ueda. Musika: Shinishiro Ikebe. Muntatze-lana: Akira Kurosawa. Koloretan. Iraupena: 134 minutu. Ekoizpena: Kurosawa Production, Daei, Dentsu. *Storyboard*-a: 82 marrazkiz osatua.

Argumentua:

1943. urtean, Hyakken Uchida irakasleak alde batera uzten du pedagogia, eta buru-belarri sartzen da idazle-ibilbidean. Bigarren Mundu Gerrako hondamenen ondorioz, etxea galtzen du, eta barraka batera joan behar du emaztearekin bizitzera. Bere ikasle ohiek, esker ona emateko, etxe berria eraikitzen diote, eta maisu beneratuaren urtebetetzea ospatzen dute urtero. Jaia ospatu bitartean, bere ehorzketa antzetzten dute, eta ezkutaketan aritzeko haur-jolasaren bertsio bat egiten duten bitartean, maisuari galde egiten diote ea prest dagoen mundu hau uzteko: «Prest zaude?» [Mahda-kai]. Eta irakasleak indarrez erantzuten dio horri: «Oraindik ez!» [Madadayo].

Edukiak:

Bizitzarekiko maitasuna, heriotzaren zentzua, maisu eta ikasleen arteko harremanekiko begirunea, pedagogiaren garrantzia.

Zinemagintzako generoa:

Drama

Teologia, natura, bizitza eta heriotzaren arteko harremana

Kurosawak batez ere budismoaren zen tradizioan eta sintoismoan oinarrituta dagoen gizarte baten esentzia filosofikoa eta teologikoa erakusten digu.

Erljio horien kode etikok eta *Bushido*-ak duten filosofia moralean, «niaren» desagerpena [heriotza] ez da modu tragikoan hartzen, askapen bat bezala baizik, naturala den zerbait bezala, norberaren bizitzaren beste alderdi baten gisa.

Hala ere, jolasa egin bitartean, ikasleek irakasleari ea prest dagoen galdeztzen dioten bakoitzean, irakasleak oraindik ez dagoela prest erantzuten du.

JARDUERAREN KOADROA

Zein da zen budismoak duen jarrera heriotzarekiko?

Zergatik uste duzu filmeko irakasleak erantzun hori ematen duela?

AKIRA KUROSAWAK ZINEMAGINTZAN UTZI DUEN AZTARNA

Orain ikusiko dugu ea gogoratzten ditugun ibilbidean barrena aipatu ditugun alderdi batzuk, lagungarria izan ahal baitzaigu erakusketaren amai-era hobeto ulertzeko. Horrez gain, Kurosawak gaur egungo zinemagintzan eta ikus-entzunezkoetan izan duen eragina aztertuko dugu.

OROITZEKO LABURPEN KOADROA

Izendatu Akira Kurosawaren lana laburtuko lituzketen bost kontzeptu

Zer sentitu duzu Kurosawaren storyboard-ak ikustean?

Zerbait gogorarazi dizute?

Zer iradoki dizute?

NON IKUSI DUT NIK HAU?

Orain, ariketa bat egingo dugu memoriarako... edo irudimenerako!

Seguru denok filmak, telesailak eta marrazki bizidunak ikusi eta mangak eta komikiak irakurri ditugula, ezta?

Orduan:

Zeintzuk izan dira gogoratu dituzun pertsonaiak bisitan zehar?



Zein film, komiki edo liburutakoa?

Zergatik?

Janzkeran, dekoratuetan, marrazki motan, storyboard-etan irudiek duten kokapenean eta abarrean pentsa dezakezu.

Ikus dezakezunez, mundu handi bat dago Akira Kurosawaren lanaren inguruan, eta, nahi izanez gero, horren gainean ikertzen jarraitu dezakezu. Egiteko hori errazteko, zure irakasleari interesgarri izango zaizkizun erreferentziei buruzko zerrenda bat eska diezaiokezu.

Goza Itzazu!



Lankidea:

The logo for HORIPRO features a small black star above the word "HORIPRO" in a bold, black, sans-serif font.

Laguntzaileak:

The logo for the Japan Foundation consists of a stylized black flower-like symbol with three petals.

JAPAN FOUNDATION
國際交流基金

The logo for CASA ASIA is a stylized black figure that resembles a person with arms raised or a flame.

CASA ASIA

Babeslea:

The logo for Infiniti is a stylized black infinity symbol.

INFINITI.